



Irakurketa Erraza

Museo eta dorretxeen IBILBIDEA

Urduña - Amurrio - Laudio



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



AIARALDEA
HELMUGA PAISAJIA DA
EL DESTINO ES EL PAISAJE

araba **álava**
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Ibilbide hau Araba eta Bizkaiko Aiaraldean eta Nerbiogoiengan zehar doa. Historia eta edertasun natural handiko tokiak dira.

Ibilbidean honako hauek egin ahalko dituzu:

- **Dorretxe** izena zuten antzinako etxeak ikusiko dituzu. Etxe horiek oso bereziak dira eta **Erdi Aroko** botere- eta defentsa-historiak kontatzen dituzte.
- **Bertako tradizio**, arte eta zapore apartak erakusten dituzten museoak ezagutuko dituzu.
- **Familia garrantzitsuen bizitzari** buruz, arte-estiloak nola aldatu diren edo tokiko likorearen historiari buruz ikasiko duzu.

Leku bakoitzak lagunduko dizu bertako iragana ulertzen eta oraina ezagutzen.

Anima zaituz Nerbiogoiengan bakarrik dituen gauzak ezagutzera!

Erdi Aroa: 5. mendean hasi eta 15. mendean bukatzen den historiaren garaia.

Informazio gehiagorako, QR kode hau eskaneatu.



Museoa



Dorretxea

Urduña – Amurrio – Laudio

Aiara – Artziniega

- 1 Urduñako Museoa
- 2 Zaldivar etxea
- 3 El Puenteko gotorretxea
- 4 Artomaña dorretxea
- 5 Mariaka dorrea
- 6 Acha Likore Museoa
- 7 Orozkoko Museo Etnografikoa
- 8 Ugarte dorrea



Delika

3

Tertanga

2

Urduña/Orduña

1

Artomaña

4

Amurrio

6

5

Artziniega

Laudio/Llodio

8

Orozko

7

1 Urduñako Museoa

Non dago?

Andra Mari Plaza, 1. Urduña-Orduña.
www.ordunahiria.org



Bisita
gidatuak

Irigarria

Zer da?

Urduñako Museoa museo **etnografikoa** da.
Artisau-lanak eta hiriaren historia azaltzen ditu.
Hiria handitzen lagundu zuten
merkataritza eta jarduera ekonomikoak
nolakoak ziren erakusten du ere.



Etnografikoa: hainbat
pertsona-talderen bizitza,
ohiturak, tradizioak eta
izaerak azaltzen dituena.



Zer ikus dezakezu bertan?

Museoak 3 solairu ditu eta 1.200 metro karratu ditu. 12 areto daude, eta bertan Urduñako azken mendeetako lanbideak eta jarduerak erakusten dituzten objektu bilduma dago.

Gainera, museoak aldi baterako erakusketak eta jarduerak antolatzen ditu hiriak kultura-bizitza gehiago izanik.

Udalarena bada ere, Hamaika Kale, boluntario taldeak kudeatzen du.

Bilduman dauden objektu guztiak Urduñari lotutako pertsonen lagatakoak edo emandakoak dira. Boluntarioek kudeatzen dute museoa eta jarduerak egiten dituzte.

Horregatik, museoaren irudiak islatzen du hainbat eskuren eskuzabaltasuna eta lankidetzaz. Horrek museoa zaintzen eta bizirik mantentzen laguntzen du.



2 Zaldivar etxea

Non dago?

Tertanga auzoa. Amurrio.



Eliza



Bolatoki zaharra



Ibilbideak

Zer da?

Badakigu 1689an jada bazegoela Zaldivar etxea, urte hartan jauregira bisita egin zutelako ekitaldi garrantzitsu batean.

Une hartan, Juan Pimienta jauna

Calatravako Ordenan sartu zen.

Agian etxea Juan Zaldivar jaunarena izan zen.

Zer ikus dezakezu bertan?

Zaldivar etxeak duen gauzarik deigarriena

harlanduzko kantoi biribilduak dira.

Xehetasun hori mantendu da,

nahiz eta etxea denboran zehar berritu den.



Calatravako Ordena:

Espainiako lurralde kristauak defendatzen zituen talde erlijioso eta militarra, Erdi Aroan.

Harlandua: eraikitzeko erabilitako harri handiak.

El Puente go torretxea 3



Non dago?

Delika auzoa. Amurrio.



Ibilbideak



Eliza



Haurren
jolastokia



Taberna

Errenazentista:

Errenazimentuarekin zerikusia du, 15. eta 16. mendeetako estilo kulturalarekin eta artistikoarekin.

Zer da?

Dorretxe hau 1500. urtearen inguruan eraiki zuten.

Horregatik estilo **errenazentista** du.

Etxe bezala erabiltzen zen, baita nekazaritzako eta abeltzaintzako lanetarako ere.

Zer ikus dezakezu bertan?

Etxe honen diseinuak bando-gerretako antzinako dorreak imitatzen ditu.

Baina, dorre honek horma arinagoak ditu eta fatxada guztietan leihoak, geletara argi gehiago sartzeko.

3 solairu eta 4 isurkiko estalkia ditu.

Hasieran, solairu bakoitzak sarrera bat zuen, baina gero barne-eskailera bat egin zuten solairuen artean igotzeko eta jaisteko.

1781ean berritu zen,

balkoiak egin zizkieten

eta eraikina modernizatu zuten.

4 Artomaña dorretxea

Non dago?

Artomaña auzoa. Amurrio.



Parking



Haurren
jolastokia



Taberna



Eliza



Ibilbideak

Zer da?

Ikerketen arabera, dorre hori

15. mendearen bigarren erdian eraiki zuten.

1859an, dorrea saldu zuten.

Salerosketaren dokumentuan adierazten da orduan hutsik zegoela dorrearen barrualdea.

Zer ikus dezakezu bertan?

Dorre honen itxura sendoa eta uniforme nabarmentzen da.

Urteetan zehar ia berdin mantendu da.

Inguruko antzinako gotorretxeen adibide garbia da.

Leiho gutxi ditu eta horrek adierazten digu defentsa-funtzioa izan zuela nagusi.



Mariaka dorrea 5



Non dago?

Orue kalea. Amurrio.



Liburuxka
deskargatu

Sarbidea
oinez

Folklorea: herriko ohitura, sinesmen, arte, abesti multzoa.

Zer da?

Amurrioko eraikinik zaharrena dugu Mariaka dorrea. Uste denez, 13. mendeko gotorretxe baten gainean eraiki zuten. Baina gaur egun ikusten dugun egiturak 15. eta 16. mendeetako Behe Erdi Aroko jauregi bat dirudi.

Zer ikus dezakezu bertan?

Mariaka dorrea bertako hainbat kondairarekin lotuta dago, hala nola Aiarako Erraldoiarenarekin. Kondairaren arabera, tamaina eta indar handiko erraldoi honek eskualdeko lurrak babesten zituen dorretxetik, haranak zaintzen eta herritarrak inbaditzaileengandik edo mehatxuetatik defendatzen zituen.

Dorrea erraldoiaren laguntzaz eraiki omen zuten. Erraldoiaren kondairak tokiko **folklorearen** parte izaten jarraitzen du, eta horrek historiaren, arkitekturaren eta Aiarako kondairen arteko lotura adierazten du.

⑥ Acha Likore Museoa

Non dago?

Maskuribai, 4. Amurrio.

www.destileriasacha.com



Parking
pribatua



Bisita
gidatuak

Zer da?

Likorearen museoa Acha **destilategian** dago.

Destilategia 1831n sortu zen.

Estatuko familia-enpresa zaharrena da eta Europako zaharrenetako bat da.

Bertan 5 belaunaldik lan egin dute.

Destilategia: likoreak egiten diren lantegia.



Zer ikus dezakezu bertan?

Museo honetan, likoreen hainbat fabrikazio-prozesu ikasi eta enpresaren historia luzearen bitxikeriak ikus ditzakezu.

Aukera aparta da likorea modu naturalean egiteko metodoak ikusteko, hala nola hartzidura, destilazioa, beratzea, ontzea...

Gainera, ikus ditzakezu ere XX. mende hasierako upelak, kontabilitate-liburuak, publizitate-materiala eta askoz ere gehiago. Bisitari esker likoreen ekoizpenaren historiaren eta tradizioaren zati garrantzitsua ezagutu ahal izango duzu.



7 Orozkoko Museo Etnografikoa

Non dago?

Plaza Zubiaur. Orozko.

www.ozokomuseoa.eus



Doan



Bisita
gidatuak



Irisgarria



Parking

Zer da?

Orozkoko museoa museo **etnografikoa** da.

Legorburu jauregi-etxean dago.

Historiaz, kulturaz eta bitxikeriaz

betetako lekua da,

eta inguruko bizitzari eta iraganari buruz

gehiago jakin dezakezu bertan.

Etnografikoa: hainbat pertsona-talderen bizitza, ohiturak, tradizioak eta izaerak azaltzen dituena.



Zer ikus dezakezu bertan?

3 solairu ditu.

Solairu bakoitza gai hauetako bati buruz da:

- Haraneko **ondare historikoa**.
- Orozkoko bizimodu tradizionala.
- Gorbeiaiko goi-lurretako biztanleak.

“Emakumeok” seriea ere ikus dezakezu.

Emakumeek historian izan duten presentziaz eta eginkizunaz hitz egiten du, hau da, ikusezin egin dituztela eta gizartean eman zaizkien rolei buruz.

Bestalde, 1818an erregistratu zen azkenekoz hartz baten presentzia Gorbeian.

Bitxikeria da museoan hartz ar heldu baten eskeleto ia osoa dagoela ikusgai.

Hartza buruan kolpe handi bat hartu ondoren hil zen, Atxerre inguruko leize batean erori ondoren seguruenik, Itxinan. Sestaoko Jarduera Espeleologikoen Taldeak (GAES) gorpua aurkitu zuen 60 metroko sakoneran.

Ondare historikoa:

leku batek dituen baliozko ondasun edo gauza multzoa.



8 Ugarte dorrea

Zer da?

Ugarte dorrea Erdi Aroko arkitekturaren adibide ederra da eta balio historiko handia du gainera.

Ugartetarren etxe nagusia izan zen. Ugartetarrek Behe Erdi Aroan Nerbioi Garaiko familia boteretsuenetakoa eta nabarmenetakoa izan ziren.

Ugartetar asko Astobiza, Ziorraga, Amurrio, Orozko eta Urkabustaizkoak dira. Bere **leinuaren** jatorritzat hartzen dute dorretxe hau.

Zer ikus dezakezu bertan?

Dorrearen jatorrizko egitura mantentzen da iparraldeko eta hegoaldeko fatxadetan. Baina atxikiak dauden eraikinek pixka bat ezkututzen dute.

Ugartetarren eta Anuncibaitarren arteko liskarretan dorreak kalteak izan ondoren egin zituzten goiko bi solairuak.



Non dago?

Ugarte kalea. Laudio.



Parking



Trena



Hirigunea



Tabernak

Leinua: noble izaten den familia baten ondoregoak edo aurrekoak.